

IPUINA - E KATEGORIA

Izengoitia: KAXKARIN

KARAKTEREAK: 16.200

HAMABIAK ETA BITAKO ORDULARIA

Zazpi eta erdiak inguru izango ziren Arnauden kotxe beltza Donostiako Alde Zaharrean sartu zenean. kostaldera gerturatu zen eta bertako joko-aretoaren ondoan aparkatu zuen. Nabari zen dirudun pertsona bat zela gure gizona, baina nolatan diru hori guztia?

Kotxetik atera zen gorbatadun esmokin beltz bat soinean zuela eta inorekin gurutzatu gabe bere aurrean zuen eraikuntza erraldoian sartu zen zuzenean. Polizia atzean utzi zuela kontuan hartuta, lasaitasun puntu batekin.

Arnaudek alboetara begiratzen zuen, poltsikoak Credit Municipal banku frantseseko diruz beterik. Duela astebete egin zuen lapurreta bankuan eta bertako dirua diru garbi bilakatzea zen bere helburu nagusia momentu hartan.

Oraingo Donostiako udaletxeko ate zabalak zeharkatu zituenerako ahaztu zitzaizkion arazoak gizonari; hango koloretako argiak, diru mordoa eta bera bezalako jendea ikusirik, momentu batez pentsamenduak lurrundu zitzaizkion, baina ez zuen denbora galtzeko aukerarik; polizia atzetik zuen, ia hankak janez. Bat-batean polizia bat sartu zen kasinoan. Ezkutatzeari ekin zion gizonak.

Gaueko laurak aldera izango ziren joko-aretoko koloredun argiak itzali zirenean. Orduan irten zen bere zokotik Arnaud, puruak pizteko bere pizgailuarekin bidea argituz. Diru hura Donostian nonbait ezkutatu beharra zuen, eta azkar gainera.

2019ko martxoaren bosta zen, goizeko zazpi eta erdiak, eta izugarritzko "pereza" ematen zidan ohetik altxatzeak. Gaitzerdi, San Telmo museora gindoazela ikastolarekin eta ez nuela idatzi ez irakurri beharrik izango, hau da, ez nuela lanik egin beharko. Baina barka ezazue

nire hutsegitea, nire izena Eneko Zalburu da, hamalau urte ditut, eta aita eta amarekin bizi naiz Egia kaleko pisu batean, nahiz eta gehienetan gurasoak kanpoan egoten diren lan kontuengatik; beraz, aitona-amonen etxean ematen dut ia egun guztia.

Irteerara bueltatuz, goizeko zortzietan sartu ginen museora, ireki eta berehala. Ni kuadrillakoekin nindoan; guztira zazpi gara. Nitaz aparte hiru neska eta beste hiru mutil daude gure kuadrillan: neskak Aintzane, Nagore eta Maider dira, eta mutilak, berriz, Jon, Gorka eta Ander.

Sartu eta berehala sarreran zain genuen bisitan zehar gidatuko gintuen pertsona. Izena Malu zuela esango nuke, baina ez nago seguru. Erakusketaren gai nagusia Donostiako historia zen. Gauza interesgarri mordo zegoen, ingelesen eta frantsesen arteko gudako kanoi boletatik hasi eta hemeretzigarren mendeko bertako argazkietara: plaza zaharrak, orain udaletxea den kasino eta abar. Hala eta guztiz ere, bazen gauza bat arreta piztu zidana: kristalera batean zegoen gutun bat. Maluk azaldu zigunez, 1890. hamarkadako gutuna zen, non bertan izugarritzko dirutza utzi zien Arnaud izeneko gizon batek bere ondorengoei, baina ezin izan zen diru kopuru hori aurkitu, eta datuek ez zuten adierazten inoiz oinordekorik egon zenik; beraz, kasua itxi egin zen eta museoari eman zitzaion gutuna. Niri, noski, ez zitzaidan askorik inporta noizkoa zen edo eta nork idatzi zuen, momentu hartan ez zitzaidan batere axola diru kopurua zenbatekoa zen ere. Hala ere, Joni mugikorra eskatu nion (neuri ez didate uzten klasera eramaten) eta disimulu pixka batekin argazkia atera nion paper zatiari.

Aitona-amonen etxean bazkaldu nuen egun hartan. Urumea pasealekuaren bukaerako etxe handi batean bizi dira, hain juxtu Santa Katalina zubiaren ondoan. Gustura bazkaldu nuen amonak prestatutako bazkaria, nahiz eta nahiko azkar jan. Ondoren salan zintzilik zegoen argazki bati begira geratu nintzen. Bertan esmokin beltz batez jantziriko gizon bat ageri zen, amonaren birraitona. Baina egun hartan zerbait arraroa zuen argazkiak, inoiz ikusi ez nuen zerbait. Gizonak eskutitz bat zuen poltsikoan; iskin bat baino ez zitzaion ikusten, baina bertan zigilu gorri bat ageri zen, ezaguna egiten zitzaidan zigilu bat.

Astebeteren ostean ohartu nintzen nondik egiten zitzaidan ezaguna paper zati hori. Joni ea kalera aterako zen galdetu nion watsapez, eta mugikorrean, beste argazki batzuen artean, museoko gutunaren argazkia ikusi nuen; honek ere zigilu bera zuen! Beraz, kalera ateratzean, Joni, Nagoreri eta Mainerri kontatu nien berehala buruan bueltaka nerabilena (gu laurok geratu baikin). Beraien erreakzioa, normala den bezala, ez zen oso serioa izan, baina horrenbeste aldiz errepikatu nien, non azkenean konbentzitu nituen ikerketa-lanerako.

Gutuna aztertzeari ekin genion, museoaren arabera hemeretzigarren mendean idatzia izan zen; nire arbasoa bizi izan zen garaian. Bigarren froga zigilua izan zen, eta azkena eta inportanteena gutunaren sinadura; Arnaud Jacquet. Abizen hori nire laugarren abizena zen! Amonak zioenez, gure familia Frantziatik etorria zen.

Baina galdera gehiegi genituen momentu hartan guztiok eta ez genuen erantzun bakar bat ere, beraz, informazioa biltzeari ekin genion. Hala, aitona-amonen etxera joan ginen segituan, amonari ea zeozer zekien galdetzera. Berak esan zigunez, ez zekien ezer, ez gutunari eta ez argazkiari buruz ere; bere birraitona zela besterik ez, eta berak erosi zuela etxe handi hura, baina gainerakoan ezer ez. Argazki hori bera txikia zenetik egon zela hor, eta harrezkeroztik ez zuela inork mugitu. Orduantxe etorri zitzaidan burura gure abentura abiaraziko zuen ideia. Gakoa koadroan zegoen! Argazkira gerturatu nintzen eta inori ezer galdetu gabe paretatik kendu nuen. Inork ez zidan esan marko zaharrek hainbesteko pisua zutenik. Hartu bezain pronto lurrera erori zitzaidan. Egurrezko koadro handia erditik hautsi eta argazkia aske geratu zen.

Hurrengo aste osoa zigorturik egon banintzen ere, merezi izan zuela esango nuke, izan ere, hautsitako markoaren barnetik paper zahar bat atera zen, lurrarekin kolpatzean. Ilusioz hartu eta zabaldu genuen papera, zer jartzen zuen jakiteko. Bertan, nahiz eta gazteleraz egon, hauxe irakur zitekeen:

Ederra da Donostia, bai, baina are ederragoak dira gordetzen dituen altxorrak. Ez dakit nor izango zaren, ez eta noiz irakurtzen ari zaren honakoa ere, baina zarena zarela ere, espero

dut Jacquet familiako odola edukiko duzula. Hogei urte pasa dira hirira ailegatu nintzenetik, eta harrezkeroztik denbora nahikoa eduki dut familiako altxorra gobernuari ezkutatzeko. Horra hau bilatzeko lehen gakoa: Jacquet familiaren etxetik itsasoraino dagoen bide laburrenaren muturrean aurkituko duzu hurrengo mezua.

Arnaud Jacquet

Nire gelan sartuta pasatu nituen hurrengo asteko arratsalde guztiak, izan ere, aitona-amonek zigortu egin ninduten gure familiarentzat horren garrantzia handia zuen oroigarri bat apurtzeagatik, baina ez pentsa zer eginik ez nuenik. Paper zati zaharrari begira pasatu nituen arratsaldeak, honen esanahiaren bila. Garbi zegoen pista bat zela, eta honek beste pista batera eramango gintuela, altxorraren bila jokoa izango balitz bezala, baina oraingoan egiazko altxorrarekin. Aitona-amonen etxea Jacquet familiaren etxea zela kontuan harturik, itsasorainoko biderik motzena Urumea ibaia zela bururatu zitzaidan, izan ere, hau ibai ondoan dago. Baina “muturrean” horrekin ez nekien zer esan nahi zuen zehazki, gauza gehiegi izan baitzitezkeen.

Arratsalde batean aitona-amonei paseotxo bat ematera atera nintekeen galdetu nien, izan ere, hori ere egiten ez baitzidaten uzten. Beraien baiezkua jasotzeak asko poztu ninduen eta korrika atera nintzen kalera. Baina nire buruan ez zegoen bueltatxo bat emateko asmo txikiena ere. Horren orde, aitona-amonen etxearen aurrean dagoen Santa Katalina zubiaren inguruan ibli nintzen, alde batetik bestera paseoan; aitona-amonen etxea ibaiarekin lotzen zuen tokiren bat bilatu nahian, eta baita bilatu ere. Nahiz eta txiki-txikitatik zubi hartatik pasatu, ez nintzen inoiz ohartu ibaiaren alde batean metalezko barrote antzeko batzuk zeudela, eta beste aldean, marea behean dagoela ikus daitekeen urbide nahiko handi bat, ate txiki baten modukoa. Beraz, hurrengo pista bertan egon zitekeela pentsaturik, bertara nola ailegatu pentsatzeari ekin nion.

Bururatu zitzaidan lehen gauza aitona-amonen etxetik sarbideren bat edo egon behar zuela izan zen, baina bi egun bila pasa eta gero, etxe handia baita, ez nuen ezer topatu. Hau

ikusita, kanpotik beste sarbideren bat egon behar zuela pentsatu nuen, baina oraindik zigorturik bi egun geratzen zitzaizkidanez (arraroa bada ere nire amona gurasoak baino zorrotzagoa da zigorrak jartzeko momentuan), kuadrillako watsapean laguntza eskatu nien lagunei, ea beraiek sarbiderik bila zezaketen proposatuz.

Bi egunak pasatu eta larunbat arratsalde hartan bertan lagunekin atera nintzen, ditzosozko zigorra bete eta gero izugarrizko gogoarekin. Egun hartan denok geratu ginen, eta nahiz eta eskolan zer edo zer esan zidaten, arratsalde hartan bertan eman zizkidaten xehetasun guztiak. Badirudi metalezko barroteak dauden tokiaren gainean mila bederatziehun eta hogeiko estolda estalki bat zegoela, eta begiratu zutenez, irekita. Bertan egon behar zuen sarbideak, baina nola sar gintezkeen Donostiako paseorik jendetsuenetako batean dagoen estolda batean, inor ohartu gabe? Erantzun bakarra zegoen, gauez. Ideia hura ez zitzaigun inori gustatu, baina altxorra nahi bagenuen egin beharra zegoen.

Gaueko hiruretan geratuak ginen Aintzane, Ander eta ni, eta hirurak bost gutxitan oraindik ohean sarturik nengoen, baina ez lokaturik nengoelako, aitona beheko egongelan irakurtzen zegoelako baizik. Ez nekien hain berandu arte geratzen zenik bere nobela luze eta astunak irakurtzen. Eskaileretatik jaitsi ezin nintekeenez, leiho ondoko palmeratik jaitea baino ez nuen izan. Hura izan zen lehen aldia, eta egia esan, askorako balio izan didan trikimailua izan da, bai sartzeko eta bai ateratzeko ere. Baina tira, istorioarekin jarraituz, nahiz eta nire etxearen ondoan egon, ni izan nintzen azkena geragunera ailegatzen. Estoldako tapakia jada irekia zuten, Anderrek pelikuletako palanka horietako bat ekarri baitzuen (auskalo nondik). Beraz, linternak atera eta barrura sartu ginen.

Itsasbehera zegoela ikus genezakeen burdinazko barroteen bestaldetik. Han barruan dena zen ilun eta heze, zahar itxura zuen lekuak eta harrizko adreilu zahar eta goroldiotsuz eraikita zegoen. Barroteen salatxoaren kontra, karakol erako eskailerak zeuden, eta adorea bilduz, bertatik jaisteari ekin genion. Bost bat metro egongo ziren beheraino; bertan beste zona heze eta ilun bat, pasillo fin baina luze baten formakoa oraingoan, klaustrofobia ematen

duten horietakoa. Ez zen bukaerarik ikusten, eta beldurrak eta estresak eraginda, ia misioa hankaz gora joan zen. Baina azkenean taldeko neskak beste biok lasaitu gintuen, eta hamar minuturen ostean (ziur asko nire bizitzako luzeenak), ilaran banan-banan pasilloa zeharkatzeari ekin genion.

Hogeita hamar metroko pasabidea zeharkatzean, espero ez genuena gertatu zen. Honen bukaeran gauaren iluntasunaren argi meharra ikus zitekeen. Amaierara heldu ginene! Ibaiaren beste aldean geunden, ate itxurako hustubide batean. Bertan miatzeari ekin genion: bost, hamar, hogeit, hogeita hamar minutu egongo ginen metro bateko altuera zuen sarrera txiki hartan zer edo zer bilatzeko esperantzarekin, eta gutxien espero genuenean, ttak! agertu zen! Nahiko aske zegoen adreilu bat behatu nuen, hau atera eta atzean egurrezko kutxatxo bat zegoela konturatu ginene.

Presio handia sentitu genuen gure gain, leku hartaz guztiz nazkaturik geunden, eta beraz, kutxa ireki ordez bertatik ateratzea pentsatu genuen. Bi minututan kanpoan geunden. Hantxe geunden, bi mutil eta neska bat goizeko laurak hamar gutxitan, egurrezko kutxatxo bat eskuartean. Poliki ireki nuen kutxa, eta bertan ordulari bat aurkitu genuen, ordulari soil bat. Zahar itxurakoa zen, poltsikoan katea batekin lotuta eramaten ziren horietakoa. Zilarrezkoa zirudien, eta kristal grixatuaren atzean, eguzki eta ilargi baten marrazkiak ikus zitezkeen. Baina arazo bat zegoen ordulariarekin; ez zen martxan jartzen. Kutxatik atera genuen, sokari eman, baina ezer ez. Orduan, Aintzaneke ordulariaren atzean zegoen tapatxo batean jarri zuen arreta eta ireki egin zuen. Engranaje, metal zati eta harribitxi txiki (errubiak esango nuke) pila bat zeuden, eta baita arazoa ere. Ez zegoen erlojugilea izan beharrik arazoaz ohartzeko. Engranaje nagusia falta zitzaion ordulariari, eta hori gabe, noski, ez zuen funtzionatzen. Amorruren amorruez, ordularia kutxan sartu genuen, baina orduantxe ohartu ginene egurrezko kaxak bigarren pisu antzeko bat zuela; beraz, azpiko tapakia altxa eta paper zahar eta umeldu bat atera genuen, hezetasunaren kontra gogor borrokatu zuena, antza. Bertan zera irakurri genuen: *ordulariaren giltza neure arbasoen gotorlekuan bilatuko duzue, odol koloreko harri batean.*

Frantsesen gotorlekua Donostiako monumenturik garrantzitsuenetarikoa da. Urgullen kokatzen denez, Donostiako setioan toki estratejikoak izan zen eta bertan milaka frantses hil ziren hura defendatu nahian. Bertara joan ginen ia kuadrilla osoa, eta ia diot zeren harritzekoa den bezala, Gorka playean jolasten geratu zen. Goiz osoa eman genuen bertan, turistez inguraturik, izan ere, udako oporrak hasiak ziren jada. Aintzane, Ander eta ni leher eginda geunden, bertan bostak aldera hartu baikenuen lo, beraz, ezin izan genuen bilaketan erabat lagundu. Beste hirukotea, ordea, hau da, Jon, Nagore eta Maider, inoiz ikusi ez genien ahalegina egiten ari ziren, bilaketan zeozer laguntzeko asmoarekin edo. Azkenean, eguerdiko ordu bi eta erdiak aldera, jada bazkaltzera joateko asmoa genuenean, Nagoreren garrasia entzun eta denak berarengana gerturatu ginen. Gorri koloreko adreilu bat bilatu zuen, harresiaren beste aldera ematen zuena, Paseo Berriaren aldera. Harriaren zulo bat ikus zitekeen, baina hara ailegatzeko gorputza amildegi aldera atera beharra zegoen, eta normala den bezala, gehienok beldurtu egin ginen behera begiratze hutsarekin. Baina Jonen bitan pentsatu gabe gorputza aurrerantz bota eta zuloa iristeko ahalegina egin zuen, eta baita ailegatu ere. Aurpegia zurbil eta eskuan larruzko karteratxo batekin igo zen berriro. Ilusioz gainezka ireki genuen, gosea eta nekea alde batera utzirik, eta bertatik urrezko engranaje bat atera genuen, eta jarraian, neure arbasoaren mezu bat: *pieza bakoitza bere lekuan ipinirik, orratzek eta diruaren jauregiko itzalek markatzen duten tokian bilatuko duzu zuk dakizun hori.*

Ordularia bizkar zorrotik atera nuen, azkar, atzeko tapatxoa ireki eta engranajea sartu genuen: lehenik tik bat, ondoren tak bat, berriz tik bat; oraingoan azkarxeago. Ordulariaren soinua eta honekin batera dantzan zebiltzan orratzak geroz eta azkarrago mugitzen hasi ziren, azkenean hamabiak eta bi minutuetan geratu zen arte. Soinua betiko gelditu zen: giltzari eman, alferrik; engranajea kendu eta berriz jarri, alferrik. Maiderrek gutuna jo zuen begiz berriz, eta gutunaren bigarren zatia ozen irakurtzen ari zelarik, diruaren jauregia entzun genuen. Donostiak garai horietan ez zuen banketxe bakar bat ere, frantsesen eta ingelesten erasoek hiria txiki-txiki eginda utzi baitzuten, baina gaur egungo udaletxea 1887an

eraikia izan zen, kasino gisa. Beraz, bere itzalari segitu behar geniola esan nahi zuen? Baina noiz? Orduan begirada guztiak ordularian iltzatu ziren berriz; hamabiak eta bi minutuetan!

Kuadrilla guztia bertan geunden hurrengo eguneko hamabietarako; Gorka barne, izan ere, eskuartean genuena ikusita, bere haitzuloa uztea erabaki zuen. Ez zegoen itzalik, ordea. Eguzkiak ez zuen mugitzeko asmorik, laino batek estaltzen baitzuen. Bat-batean, hain juxtu hamabiak eta bi minutuetan, izugarrizko haize bolada sumatu zen, eta lainoa mugiarazi eta udaletxearen itzala itsasorantz sartu zen. Bitan pentsatu gabe, kamixetak kendu (badaezpada ere bainujantziak jarrita genituen, ezer bilatuko ez bagenu bainutxo bat hartzeko behintzat) eta uretan sartu ginen, dorrerik altuenaren itzala amaitzen zen tokira ailegatu arte. Bertan soka lodi eta zahar bat ikus zitekeen, urpean. Pittin bat urperatu genuen geure burua, soka hartatik tira egiteko eta hau hondarpetik ateratzeko. Baina alferrik, ordu erdi barru leher eginda hondartzara bueltatu ginen. Orduantxe hartu zuen protagonismoa Gorkak, izan ere, bere ama San Telmo museoko burua da, eta horri esker, udaletxearekin harremanetan jarri ginen, aurkitutakoa bertatik ateratzeko.

Astebeteren ostean atera zuten altxor hura bertatik, garai bateko milioika frantziar frankoz beteriko burdinazko kutxa handi bat, eta nahiz eta diru hura museoaren esku utzi, gure istorioa mundu osoan zehar zabaldu zen, ahoz aho.

Idazlearen oharra: Ipuin honetan aipatzen diren leku guztiak, urpeko soka zatia, estoldak eta adreilua barne, egiazko lekuak dira.